

TREBAKUNTZA 2021-06/07: FROGA ETA PROBA

Sarritan, alboko hizkuntzen eraginez, nahastu egiten ditugu *froga* eta *proba* hitzak. Gaztelaniazko *prueba* hitza euskaraz *froga* izango da batzuetan, eta *proba* beste batzuetan.

OHARRA: *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

OHIKO AKATSAK

1. * Oso **froga** gogorra da maratokia.
2. * Haurdun ote zegoen **froga** egitera joan zen.
3. * Euskara azterketa egitera joan da. Atariko **froga** zeukan lehendabizi.
4. * Epaitegian bere aurkako hainbat **proba** aurkeztu zituzten.
5. * Errugabea dela **probatu** behar izan du ikastetxeko zuzendaritzakoan aurrean.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Esperimentuak, kirol lehiak, etsaminak eta analisi medikoak 'probak' dira, ez 'frogak'. Beraz:

1. Oso **proba** gogorra da maratokia.
2. Haurdun ote zegoen **proba** egitera joan zen.
3. Euskara azterketa egitera joan da. Atariko **proba** zeukan lehendabizi.

Bestalde, epaitegietakoak 'frogak' dira, ez 'probak'. Era berean, zerbait argi eta garbi erakusteko balio duena 'froga' da. Beraz:

4. Epaitegian bere aurkako hainbat **froga** aurkeztu zituzten.
5. Errugabea dela **frogatu** behar izan du ikastetxeko zuzendaritzakoan aurrean.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699